# Programazioak

Haur Hezkuntza · 2 urte

nubaris
proiektua

IBAIZABAL

# Programazioa
## Ezetz asmatu nor dabilen eskolan?

| | helburuak | |
|---|---|---|
| **Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala** | • Pixkanaka, norberaren gorputza ezagutzea eta ikertzea.<br>• Mutilen eta nesken arteko ezaugarri bereizgarriez ohartzea.<br>• Norberaren sentimenduak identifikatzea: pozik, triste.<br>• Mugimendu jardueretan parte hartze aktiboa izatea.<br>• Jantziekin zerikusia duten autonomia ohiturak garatzea.<br>• Mantala edo berokia janzten eta eranzten laguntzea.<br>• Oinarrizko beharrei antzematea eta haiek adieraztea. | **Nortasun pertsonala sortzea**<br><br>**Ongizate pertsonala eta egunerokotasuna** |
| **Ingurunearen ezaguera** | • Ikasgelako objektuak non dauden jakitea.<br>• Denon espazioak eta materialak modu egokian erabiltzea.<br>• Kolorea ezagutzea eta erabiltzea: gorria.<br>• Neurria adierazten duten kontzeptuak bereiztea: handia eta txikia.<br>• Espazio kokalekuak identifikatzea: goian, behean.<br>• Urtaro bakoitzean ingurunean izaten diren zenbait aldaketa hautematea: udazkena.<br>• Jantzi batzuk eguraldiarekin lotzea.<br>• Eskolako guneak ezagutzea eta, horietan, era autonomoan ibiltzea: jolastokia, ikasgela eta psikomotrizitate gela.<br>• Hezitzailea eta ikaskideak ezagutzea, eta bere burua taldeko partaide gisa ikustea.<br>• Pixkanaka, ikastetxeko arau eta portaera moldeetara egokitzea.<br>• Aitona-amonek familia ingurunean duten eginkizuna balioestea. | **Ingurune fisiko eta naturalarekiko interakzioa**<br><br>**Bizitza ingurukoekin** |
| **Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena** | • Norberaren oinarrizko premiak adieraztea.<br>• Unitatean landutako hiztegia ulertzea eta erabiltzea.<br>• Helduen mezuak ulertzea.<br>• Ekintzak adierazten dituzten piktogramen eta irudien laguntzaz, esaldiak irakurtzea eta interpretatzea.<br>• Marrazki askeak egiteko, mugimenduen koordinazioa garatzea.<br>• Ipuin bat irakurtzen edo kontatzen denean, entzuteko interesa erakustea.<br>• Kolorea ezagutzea eta erabiltzea: gorria.<br>• Zenbait teknika erabiltzea plastika jarduerak egiteko: estanpatzea, irudiak betetzea.<br>• Entzumenaren bidez bereiztea: hotsa, isiltasuna, abestia.<br>• Musika lanen entzunaldietan parte hartze aktiboa izatea.<br>• Gorputzak komunikatzeko dituen ahalbideak erabiltzea emozioak adierazteko. | **Hitzezko komunikazioa**<br><br>**Komunikatzeko beste modu batzuk: plastikakoa, musikakoa eta gorputzaren bidezkoa** |

# UNITATEA 1

| edukiak | | ebaluazio irizpideak |
|---|---|---|
| • Mutilen eta nesken arteko ezaugarri bereizgarriez ohartzea.<br>• Sentimenduak eta emozioak adieraztea eta identifikatzea: pozik, triste. | • Mugimendu jardueretan besteekin batera parte hartu, elkarri eraginez. | • Nesken eta mutilen arteko desberdintasunei antzematea.<br>• Emozio egoerak hautematea eta adieraztea: pozik eta triste.<br>• Ikaskideekin batera aritzea, parte hartzen duen mugimendu jardueretan.<br>• Berokia edo mantala janzten edo eranzten laguntzea. |
| • Mantala eta berokia janzteko eta eranzteko koordinazioa.<br>• Trebetasun berriak ikasteko ekimena. | • Helduekiko lankidetza. | |
| • Ikasgelako espazioa eta objektuak.<br>• Inguruko guneak eta objektuak zaintzea.<br>• Kolorea: gorria.<br>• Neurriak: handia, txikia.<br>• Espazio kokalekua: goian, behean. | • Klimatologiak ingurunean eragiten dituen aldaketak: udazkena.<br>• Fenomeno atmosferikoek eguneroko bizitzan duten eraginari erreparatzea: jantziak. | • Ikasgelako objektuez ohartzea eta non dauden jakitea.<br>• Denon espazioak eta materialak zaintzea.<br>• Koloreak hautematea: gorria.<br>• Zenbatzaileak bereiztea eta erabiltzea: handia, txikia.<br>• Espazioan kokaturiko elementuak identifikatzea: goian, behean.<br>• Udazkenean izaten diren zenbait bizimodu aldaketari erreparatzea.<br>• Fenomeno atmosferikoei lotutako jantzi batzuk identifikatzea.<br>• Ikastetxeko leku nagusiak non dauden jakitea eta han modu autonomoan orientatzea: jolastokia, ikasgela eta psikomotrizitate gela.<br>• Hezitzailea eta ikaskideak nor diren jakitea.<br>• Familia inguruneko adineko pertsonak nor diren jakitea. |
| • Eskolako guneak ezagutzea eta, horietan, era autonomoan ibiltzea: jolastokia, ikasgela eta psikomotrizitate gela.<br>• Gelako taldea: hezitzailea eta ikaskideak. | • Eskolako bizitzan parte hartzeko interesa.<br>• Egun berezia: Hirugarren adinekoen eguna. | |
| • Oinarrizko premiei buruzko mezuak ekoiztea.<br>• Adierazpen eta komunikazio premiak.<br>• Helduen komunikazio asmoak ulertzea.<br>• Hiztegia: eskolako ikaskideen eta helduen izenak, eskolako gelak eta gelako objektuak.<br>• Irudiak: eguneroko bizitzako objektuak.<br>• Irakurketa programa:<br>— Piktogramak: sartu, irten.<br>• Mezu laburrak eta esaldi errazak piktogramen laguntzaz irakurtzea eta egitea.<br>• Marrazki askeak egitea. | • Ipuinak, gozatzeko eta ikasteko:<br>— Ipuin motibatzailea: *Ezetz asmatu nor dabilen eskolan?*<br>— Ur Tantak bilduma: *Nire lehen eskola eguna.* | • Oinarrizko beharrak modu ulergarrian adieraztea.<br>• Ohiko objektuen irudiak interpretatzea.<br>• Unitateko lexikoa erabiltzea.<br>• Unitateko piktogramak interpretatzea.<br>• Zirrimarrak nahierara egitea.<br>• Plastikako teknika hauek erabiltzea: estanpazioa eta hatzetako pinturaren bidez betetzea.<br>• Hotsa eta isiltasuna bereiztea.<br>• Gorputz hizkuntzaren bidez, emozioak adieraztea. |
| • Teknika plastikoen erabilera: hatz pintura (estanpatzea, irudiak betetzea eta zirrimarratzea).<br>• Plastika lanak egiteko jarrera positiboa.<br>• Plastikako tailerrak egitea: *Nire lagun Margolin maitagarria* (bakarkako jarduera) eta *Eskolara etorri diren haurren horma irudia* (taldekako jarduera).<br>• Hotsa, isiltasuna eta abestia identifikatzea. | • Entzunaldiak: BIZET, G.: *Karmen, Suite*; MUSSORGSKY, M.: *Erakusketa bateko koadroak*, Promenadea.<br>• Gorputzaren bidez emozioak erreproduzitzea eta komunikatzea. | |

# Programazioa
## Gosaria, askaria… egiten ari naiz handi-handia!

| | helburuak | |
|---|---|---|
| **Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala** | • Pixkanaka, norberaren gorputza ezagutzea eta ikertzea.<br>• Aurpegiko zati nagusiak bereiztea: begiak, sudurra, ahoa, belarriak, ilea.<br>• Zentzumen organoak eta horien funtzioak identifikatzea.<br>• Sentimenduak kontrolatzen hastea: pozik, triste.<br>• Gorputzaren mugimenduak aztertzea.<br>• Zenbait elikagai identifikatzea.<br>• Egunean zehar egiten diren otordu nagusiei erreparatzea.<br>• Garbitasun eta higiene ohiturak garatzea: eskuak eta aurpegia garbitzea eta lehortzea. | **Nortasun pertsonala sortzea**<br><br>**Ongizate pertsonala eta egunerokotasuna** |
| **Ingurunearen ezaguera** | • Elikadurarekin loturiko objektuak identifikatzea.<br>• Kolorea ezagutzea eta erabiltzea: horia.<br>• Zenbatzaileak bereiztea eta erabiltzea: asko, gutxi.<br>• Forma zirkularreko objektuak identifikatzea.<br>• Higiene jardueretan, ura zaintzeko eta modu arduratsuan erabiltzeko jarrerak garatzea.<br>• Urtaro bakoitzean ingurunean gertatzen diren aldaketei antzematea: negua.<br>• Elikatzeko uneetan dauden arauak eta gizarte portaerak ikasten hastea.<br>• Ingurunean ospatzen diren zenbait jairen berri izatea: Eguberriak.<br>• Besteak errespetatzeko, laguntzeko eta haiekin elkarlanean aritzeko jarrerak eta ohiturak garatzea. | **Ingurune fisiko eta naturalarekiko interakzioa**<br><br>**Bizitza ingurukoekin** |
| **Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena** | • Norberaren emozioak eta nahiak adieraztea.<br>• Unitatean landutako hiztegia ulertzea eta erabiltzea.<br>• Ekintzen irudiak eta piktogramak interpretatzea.<br>• Zirrimarra gidatuak egiteko, mugimenduen koordinazioa garatzea.<br>• Ipuin bat irakurtzen edo kontatzen denean, entzuteko interesa erakustea.<br>• Zimurtzearen teknika plastikoa erabiltzea eta esperimentatzea.<br>• Musika lanen entzunaldietan parte hartze aktiboa izatea.<br>• Norberaren gorputzarekin hotsak erreproduzitzea. | **Hitzezko komunikazioa**<br><br>**Komunikatzeko beste modu batzuk: plastikakoa, musikakoa eta gorputzaren bidezkoa** |

# UNITATEA 2

| edukiak | | ebaluazio irizpideak |
|---|---|---|
| ● Norberaren eta besteen aurpegiko zatiak bereiztea: begiak, sudurra, ahoa, belarriak, ilea.<br>● Zentzumen organoak identifikatzea.<br>● Sentimenduak eta emozioak erregulatzea: pozik, triste. | ● Gorputzaren mugimenduak lantzea: mugitzea, gelditzea, altxatzea. | ● Aurpegiaren atal nagusiak identifikatzea eta bereiztea.<br>● Zentzumenen organoak zein diren eta zer funtzio dituzten konturatzea.<br>● Sentimenduei antzematea eta pixkanaka kontrolatzea: alai, triste.<br>● Gorputz mugimenduak egitea: mugitzea, gelditzea, altxatzea.<br>● Haurren ohiko dietako elikagaiak identifikatzea.<br>● Elikatzeko uneak bereiztea.<br>● Gorputzeko higiene ohiturak bereganatzea: eskuak garbitzea. |
| ● Elikagai mota batzuk identifikatzea.<br>● Elikatzeko uneei erreparatzea eta haiek onartzea: gosaria, bazkaria, afaria. | ● Gorputzaren ongizateari loturiko garbitasun eta higiene ohiturak: eskuak garbitzea eta lehortzea. | |
| ● Elikadurarekin loturiko tresnak: koilara, sardexka eta labana.<br>● Kolorea: horia.<br>● Zenbatzaileak: asko, gutxi.<br>● Irudiak: forma zirkularrak. | ● Ura modu arduratsuan erabiltzea higiene ohituretan.<br>● Inguruneko aldaketak: negua. | ● Elikadurarekin loturiko objektuei antzematea.<br>● Koloreak hautematea: horia.<br>● Zenbatzaileak bereiztea eta erabiltzea: asko, gutxi.<br>● Zirkulu formako objektuak identifikatzea.<br>● Ura modu arduratsuan erabiltzea eguneroko jardueretan.<br>● Ingurunean neguan gertatzen diren zenbait aldaketari erreparatzea.<br>● Elikagaiak eta jatorduen ordutegia onartzea.<br>● Eguberrietako bereizgarriren bati erreparatzea.<br>● Zoriontsu egiten gaituzten alderdiak identifikatzea. |
| ● Jatorduen ordutegiak onartzea.<br>● Inguruneko jaiak: Eguberriak. | ● Egun berezia: Haurren eskubideen eguna. | |
| ● Emozioei eta nahiei buruzko mezuak ekoiztea.<br>● Elikadurarekin loturiko lexikoa bereganatzea: elikagaiak, tresnak, elikatzeko uneak.<br>● Irudien irakurketa: eguneroko objektuak.<br>● Irakurketa programa:<br>— Piktogramak: jan, edan.<br>● Piktogramek eta irudiek osatutako mezu laburrak irakurtzea.<br>● Zirrimarra gidatuak egitea. | ● Ipuinak, gozatzeko eta ikasteko:<br>— Ipuin motibatzailea: *Gosaria, askaria… egiten ari naiz handi-handia!*<br>— Ur Tantak bilduma: *Egin al dezakegu?* | ● Emozioak eta nahiak modu ulergarrian adieraztea.<br>● Unitateko lexikoa erabiltzea.<br>● Unitateko piktogramak interpretatzea.<br>● Zirrimarra gidatuak egitea.<br>● Plastikako teknika hau erabiltzea: zimurtzea.<br>● Gorputza baliatuta, hotsak bereiztea eta egitea: txaloak, oin hotsak. |
| ● Plastika lanak egiteko jarrera positiboa.<br>● Plastikako tailerrak egitea: *Eguberrietako kanpaiak* (bakarkako jarduera) eta *Eguberrietako jaiotza* (taldekako jarduera).<br>● Entzunaldiak: RIMSKY-KORSAKOV, N.: *Kapritxoa,* Alborada; BEETHOVEN, L. V.: 8. sonata, 13. op., *Patetikoa*, 2. Mugimendua. | ● Gorputz hizkuntzaren bidez, emozio egoerak adieraztea.<br>● Gorputzarekin hotsak ateratzea: txaloak, oin hotsak. | |

# Programazioa
## Jolastu, jolastu… eta ingurua ikertu!

| | helburuak | |
|---|---|---|
| **Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala** | • Pixkanaka, norberaren gorputza ezagutzea eta ikertzea.<br>• Gorputz atalak bereiztea: burua, enborra eta gorputz adarrak.<br>• Norberaren sentimendu eta emozioak identifikatzea: harrituta, haserre.<br>• Jolas batzuetan eta jostailu batzuekin, parte hartze aktiboa izatea.<br>• Jolasekin eta jostailuekin loturiko gizarte eta autonomia ohiturak garatzea. | **Nortasun pertsonala sortzea**<br>**Ongizate pertsonala eta egunerokotasuna** |
| **Ingurunearen ezaguera** | • Inguruneko objektuei erreparatzea eta horiekiko interesa izatea: jostailuak.<br>• Kolorea ezagutzea eta erabiltzea: gorria, horia.<br>• Espazio kokalekuak identifikatzea: barruan, kanpoan.<br>• Irudi laua identifikatzea: zirkulua.<br>• Kaleko jolasak identifikatzea: parkea.<br>• Urtaro bakoitzean ingurunean gertatzen diren aldaketei antzematea: negua.<br>• Ikasgelan bete beharreko oinarrizko portaera arauak errespetatzea: jostailuak jasotzea eta partekatzea.<br>• Ikaskideekin eta helduekin elkarlanean aritzeko garrantzia balioestea. | **Ingurune fisiko eta naturalarekiko interakzioa**<br>**Bizitza ingurukoekin** |
| **Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena** | • Unitatean landutako hiztegia ulertzea eta erabiltzea.<br>• Ekintzak adierazten dituzten irudi eta piktogramen laguntzaz, esaldiak irakurtzea eta interpretatzea.<br>• Zirrimarra kontrolatuak egiteko, mugimenduen koordinazioa garatzea.<br>• Ipuin ezagunen kontakizunak interpretatzea.<br>• Ipuin eta liburu errazen kontakizuna ulertzea.<br>• Plastikako lanetan, puntutxoak egitearen teknika plastikoa esperimentatzea.<br>• Musika tresnak identifikatzea: danborra, xilofonoa eta tronpeta.<br>• Musikaren erritmoari jarraituz batetik bestera mugitzea.<br>• Erlaxazio egoera eta arnasketaren kontrola adieraztea eta esperimentatzea. | **Hitzezko komunikazioa**<br>**Komunikatzeko beste modu batzuk: plastikakoa, musikakoa eta gorputzaren bidezkoa** |

# UNITATEA 3

| edukiak | | ebaluazio irizpideak |
|---|---|---|
| • Norberaren eta besteen gorputz atal nagusiak bereiztea: burua, enborra eta gorputz adarrak.<br>• Norberaren eta besteen haserrezko eta harridurazko egoera emozionalak identifikatzea. | • Kanpoko eta mugimenduko jolasetan parte hartzea.<br>• Jostailu bakunak egitea. | • Gorputz atalak bereiztea: burua, enborra eta gorputz adarrak.<br>• Norberaren sentimenduak eta emozioak hautematea: harrituta, haserre.<br>• Eskolako jostailuak ikaskideekin partekatzea.<br>• Ordenarekin loturiko gizarte eta autonomia ohiturak garatzea: jostailuak jasotzea. |
| • Ordenarekin loturiko eguneroko bizitzako jarduerak: jostailuak jasotzea. | • Gizarte ohiturak: jostailuak partekatzea. | |
| • Inguruneko objektuak: jostailuak.<br>• Jolaserako guneak: parkea.<br>• Kolorea: gorria, horia.<br>• Espazio kokalekua: barruan, kanpoan. | • Irudi laua identifikatzea: zirkulua.<br>• Aire zabaleko jardueretan parte hartzea eta ondo pasatzea.<br>• Inguruneko aldaketak: negua. | • Inguruneko objektuei erreparatzea eta interesatzen zaiela adieraztea: jostailuak.<br>• Koloreak hautematea: horia eta gorria.<br>• Espazio kokalekua identifikatzea: barruan, kanpoan.<br>• Irudi laua identifikatzea: zirkulua.<br>• Kanpoko jolasei antzematea eta haietan ondo pasatzea: parkea.<br>• Ingurunean neguan gertatzen diren zenbait aldaketari erreparatzea.<br>• Eskolako jostailuak ikaskideekin partekatzea.<br>• Ikasgelako jostailuak jasotzeko ohiturak bereganatzea.<br>• Taldekako jarduerak egitea, elkarlanaren garrantzia balioesteko. |
| • Ikasgelan izan beharreko portaera arauak bereganatzea: jostailuak jasotzea eta partekatzea. | • Egun berezia: Bakearen eguna. | |
| • Jolasekin eta jostailuekin loturiko lexikoa erabiltzea.<br>• Irudiak irakurtzea: eguneroko bizitzako objektuak.<br>• Irakurketa programa:<br>— Piktogramak: margotu, jolastu.<br>• Piktogramek eta irudiek osatutako mezu laburrak irakurtzea.<br>• Zirrimarra kontrolatuak egitea.<br>• Hizkuntza idatziko tresnak: ipuinak eta liburuak.<br>• Ipuinak kontatzean, poza eta gozamena sentitzea. | • Ipuinak, gozatzeko eta ikasteko<br>— Ipuin motibatzailea: *Jolastu, jolastu… eta ingurua ikertu!*<br>— Ur Tantak bilduma: *Pinpon panpina.* | • Unitateko lexikoa erabiltzea.<br>• Unitateko piktogramak interpretatzea.<br>• Zirrimarra kontrolatuak egitea.<br>• Ipuinen kontaketak ulertzea.<br>• Ipuin eta liburuetako irudiak interpretatzea.<br>• Plastikako teknika hau erabiltzea: puntuz estaltzea.<br>• Musika tresnak identifikatzea: danborra, xilofonoa eta tronpeta.<br>• Gorputz egoera hauek adieraztea eta lantzea: erlaxazioa eta arnas kontrola.<br>• Espazioan mugitzea, zenbait musika erritmori jarraituz. |
| • Teknika plastikoen erabilera: puntutxoak egitea.<br>• Nork bere obra plastikoak aintzat hartzea.<br>• Plastikako tailerrak egitea: *Nire nubaris panpina* (bakarkako jarduera) eta *Kometa hegalaria* (taldekako jarduera).<br>• Musika tresnak identifikatzea: danborra, xilofonoa eta tronpeta.<br>• Entzunaldiak: MOZART, W. A.: *Pianorako sonata La-n*; ROSSINI, G.: *Gilen Tell* operako obertura, Bukolikoa. | • Gorputz kontrola lantzea: erlaxazioa, arnasketa.<br>• Gorputz erritmoez ohartzea eta haiek egitea: lekualdaketak. | |

# Programazioa
## Hara, hara… non ote da?

| | helburuak | |
|---|---|---|
| **Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala** | • Pixkanaka, norberaren gorputza ezagutzea eta ikertzea.<br>• Gorputz atalak bereiztea: besoak, hankak, oinak, sabela, bizkarra.<br>• Norberaren emozioak adieraztea, eta horiek kontrolatzen hastea: harrituta, haserre.<br>• Mugimenduak bereganatzeko prozesuan aurrera egitea.<br>• Autonomia pertsonaleko ohiturak garatzea, eta komunera joateko premia adieraztea.<br>• Nor bere kabuz moldatzeko teknikak finkatzea: esfinterren kontrola.<br>• Helduei etxeko lanak egiten laguntzeko interesa azaltzea. | **Nortasun pertsonala sortzea**<br><br>**Ongizate pertsonala eta egunerokotasuna** |
| **Ingurunearen ezaguera** | • Etxeko gelak ezagutzea.<br>• Etxeko altzari eta objektu batzuk ezagutzea.<br>• Kolorea ezagutzea eta erabiltzea: urdina.<br>• Objektuak neurriaren arabera bereiztea: handia/txikia.<br>• Espazio kokalekuak identifikatzea: irekita/itxita.<br>• Karratu forma duten objektuak identifikatzea.<br>• Ura modu arduratsuan erabiltzeko jokabideak garatzea.<br>• Urtaro bakoitzean ingurunean gertatzen diren aldaketei antzematea: udaberria.<br>• Giza bizitzaren antolaketa era batzuk ezagutzea: familia.<br>• Familiartekoak balioestea, maitasun sentimenduak adieraziz. | **Ingurune fisiko eta naturalarekiko interakzioa**<br><br>**Bizitza ingurukoekin** |
| **Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena** | • Hizkuntza ekoizpenak garatzea, elkarrizketak erabiliz.<br>• Unitatean landutako hiztegia erabiltzea.<br>• Ekintzak adierazten dituzten irudi eta piktogramen laguntzaz, esaldiak irakurtzea eta interpretatzea.<br>• Marra bertikal errazak egiteko, mugimenduen koordinazioa garatzea.<br>• Ipuin bat irakurtzen edo kontatzen denean, entzuteko interesa erakustea.<br>• Ipuinen kontakizunetan, pertsonaiak identifikatzea.<br>• Urratzearen teknika plastikoa erabiltzea eta esperimentatzea.<br>• Hotsak bereiztea: hots ozenak eta hots leunak.<br>• Musika lanen entzunaldietan parte hartze aktiboa izatea.<br>• Pertsonaia ezagunak antzeztea. | **Hitzezko komunikazioa**<br><br>**Komunikatzeko beste modu batzuk: plastikakoa, musikakoa eta gorputzaren bidezkoa** |

# UNITATEA 4

| edukiak | | ebaluazio irizpideak |
| --- | --- | --- |
| • Norberaren eta besteen gorputzeko zati nagusiak bereiztea: besoak, hankak, sabela, bizkarra.<br>• Sentimenduak eta emozioak erregulatzea: harrituta, haserre. | • Mugimenduen koordinazioa jolasetan. | • Gorputz atalak identifikatzea: besoak, hankak, oinak, sabela, bizkarra.<br>• Emozioak adieraztea eta emozioak kontrolatzen hastea: harrituta, haserre.<br>• Mugimendu aukerak garatzea espaziotik lekualdatzean.<br>• Norberaren autonomia ohiturak finkatzea: komunera joateko premia adieraztea eta esfinterren kontrola.<br>• Gizarteko portaera arauak erabiltzen hastea: etxean laguntzea. |
| • Nor bere kabuz moldatzeko teknikak garatzea eta finkatzea: esfinterren kontrola. | • Helduekin elkarlanean aritzea: etxean laguntzea. | |
| • Etxeko gelak eta horien eginkizuna ezagutzea: logela, komuna, sukaldea.<br>• Etxeko objektuak eta altzariak.<br>• Kolorea: urdina.<br>• Objektu bildumak: handiak, txikiak. | • Espazio nozioak: irekita, itxita.<br>• Irudiak: karratu formak.<br>• Higiene pertsonalean, ura modu arduratsuan erabiltzea.<br>• Inguruneko aldaketak: udaberria | • Etxeko leku nagusiak bereiztea, bai eta leku horietan dauden objektuak eta altzariak ere.<br>• Koloreak hautematea: urdina.<br>• Handia eta txikia zenbatzaileak objektu multzoetan erabiltzea.<br>• Objektuen egoerak bereiztea: irekita, itxita.<br>• Karratu formako objektuak identifikatzea.<br>• Ura modu arduratsuan erabili behar dela ohartzea.<br>• Ingurunean udaberrian gertatzen diren zenbait aldaketei erreparatzea.<br>• Norberaren familiako kideak nor diren jakitea eta haienganako maitasuna adieraztea. |
| • Lehenengo giza taldeak identifikatzea: familia.<br>• Familiako kideei behatzea, eta horiek identifikatzea: aita, ama, anai-arrebak, aitona-amonak, osaba-izebak. | • Egun berezia: Aitaren eguna. | |
| • Elkarrizketaz baliatzea, eta horietan parte hartzea.<br>• Etxearekin eta familiarekin loturiko lexikoa bereganatzea: gelak, objektuak, familiako kideak.<br>• Irudiak irakurtzea: eguneroko bizitzako objektuak.<br>• Irakurketa programa:<br>— Piktogramak: gorde, atera.<br>• Mezu laburrak eta esaldi errazak piktogramen laguntzaz irakurtzea eta egitea.<br>• Marra bertikalak egitea. | • Ipuinetako pertsonaiak identifikatzea eta ezagutzea.<br>• Ipuinak, gozatzeko eta ikasteko:<br>— Ipuin motibatzailea: *Tik-tak, tik-tak... non ote da?*<br>— Ur Tantak bilduma: *Ez dut jada pix-pix egiten!* | • Elkarrizketetan parte hartzea.<br>• Unitateko lexikoa erabiltzea.<br>• Unitateko piktogramak interpretatzea.<br>• Marrak goitik behera egitea.<br>• Kontaketa baten pertsonaiak nor diren ohartzea.<br>• Plastikako teknika hau erabiltzea: urratzea.<br>• Hots ozenak eta ahulak bereiztea.<br>• Pertsona ezagunak antzeratzea. |
| • Plastikako lanetan urratzearen oinarrizko teknika plastikoa erabiltzea.<br>• Plastika lanak egiteko jarrera positiboa.<br>• Plastikako tailerrak egitea: *Nire ama* (bakarkako jarduera) eta *Gure herria* (taldekako jarduera)<br>• Hotsak bereiztea: hots ozenak eta hots leunak. | • Entzunaldiak: BACH, J. S.: *Brandenburgoko 2. kontzertua,* 3. mugimentua, BWV 1047; DVORÁK, A.: 9. sinfonia, 95. op, *Mundu Berrikoa.*<br>• Eguneroko bizitzako eta ipuinetako pertsonaiak antzeztea. | |

# Programazioa
## Txio, txio… Amatxo?

| | helburuak | |
|---|---|---|
| **Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala** | • Pixkanaka, norberaren gorputza ezagutzea eta ikertzea.<br>• Egoera emozionalak identifikatzea: algaraka, negarrez.<br>• Norberaren gorputza kontrolatzea, jarduera ludikoetan.<br>• Norberaren gorputza kontrolatzea, hainbat gorputz jarreratan.<br>• Bizikidetza ohiturak garatzea: animaliak eta landareak errespetatzea eta zaintzea. | **Nortasun pertsonala sortzea**<br><br>**Ongizate pertsonala eta egunerokotasuna** |
| **Ingurunearen ezaguera** | • Kolorea ezagutzea eta erabiltzea: berdea.<br>• Zenbatzaileak bereiztea eta erabiltzea: bat, asko.<br>• Norberarengandik hurbil eta urrun espazio kokalekuak identifikatzea.<br>• Irudi laua identifikatzea: karratua.<br>• Inguruneko landareei begiratzea eta loreak bereiztea.<br>• Etxeko animaliak ezagutzeko jakin-mina eta interesa.<br>• Urtaro bakoitzean ingurunean gertatzen diren aldaketei antzematea: udaberria.<br>• Ingurune naturalaren garrantziaz jabetzen hastea.<br>• Liburuaren egunean parte hartze aktiboa izatea.<br>• Familiartekoak balioestea, maitasun sentimenduak adieraziz. | **Ingurune fisiko eta naturalarekiko interakzioa**<br><br>**Bizitza ingurukoekin** |
| **Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena** | • Objektuak eta pertsonaiak deskribatzeko ahozko hizkuntza erabiltzea.<br>• Unitate honetako hiztegia erabiltzea.<br>• Objektuak eta pertsonaiak deskribatzeko hiztegia zabaltzea.<br>• Ekintzak adierazten dituzten irudi eta piktogramen laguntzaz, esaldiak irakurtzea eta interpretatzea.<br>• Silueta zirkular askeak egiteko, mugimenduen koordinazioa garatzea.<br>• Ipuin bat irakurtzen edo kontatzen denean, entzuteko interesa erakustea.<br>• Ipuinetako irudiak irakurtzea eta interpretatzea.<br>• Oratzearen teknika plastikoa erabiltzea eta esperimentatzea.<br>• Animalia ezagunen hotsak imitatzea eta bereiztea.<br>• Animaliak antzeztea. | **Hitzezko komunikazioa**<br><br>**Komunikatzeko beste modu batzuk: plastikakoa, musikakoa eta gorputzaren bidezkoa** |

# UNITATEA 5

| edukiak | | ebaluazio irizpideak |
|---|---|---|
| • Egoera emozionalak identifikatzea: algaraka, negarrez. | • Gorputz jarreretan gorputza gero eta hobeto kontrolatzea: zutik, eserita, etzanda. | • Emozio egoerak hautematea eta adieraztea: negarrez, barre algaraka.<br>• Zenbait jarreratan gorputza kontrolatzea: zutik, eserita, etzanda.<br>• Elkarrekin bizitzeko eta izakiak eta gauzak zaintzeko ohiturak garatzea: animaliak eta landareak errespetatzea. |
| • Etxeko animalia edo landareren bat zaintzeko jarduerak egitea. | • Animalia eta landare ezezagunekin kontuz ibiltzea. | |
| • Kolorea: berdea.<br>• Zenbatzaileak: bat, asko.<br>• Espazio kokalekua: hurbil, urrun.<br>• Irudi laua: karratua.<br>• Ingurune naturalei behatzea. | • Eskolako edo inguruko lorategiren bateko landareei behatzea.<br>• Etxeko animaliak behatzea.<br>• Inguruneko aldaketak: udaberria. | • Koloreak hautematea: berdea.<br>• Zenbatzaileak bereiztea eta erabiltzea: bat, asko.<br>• Objektuak espazioan kokatzea: hurbil, urrun.<br>• Irudi laua identifikatzea: karratua.<br>• Inguruneko landareei behatzea eta loreei antzematea.<br>• Etxe abere batzuk ezagutzeko eta zer kanpoko ezaugarri dituzten jakiteko interesa eta jakin-mina adieraztea.<br>• Ingurunean udaberrian gertatzen diren zenbait aldaketari erreparatzea.<br>• Natura ingurunearen garrantzia balioestea, bai eta hura zaintzeko eta errespetatzeko beharra ere.<br>• Liburuaren eguneko jardueretan ondo pasatzea.<br>• Norberaren familiako kideak nor diren jakitea eta haienganako maitasuna adieraztea. |
| • Gelan landareren bat zaintzea. | • Egun bereziak: Liburuaren eguna, Amaren eguna. | |
| • Ahozko hizkuntza: gauzak adierazteko premia.<br>• Animaliekin eta landareekin loturiko lexikoa erabiltzea: animalien izenak, landareen izenak.<br>• Irudiak irakurtzea: eguneroko bizitzako objektuak.<br>• Irakurketa programa:<br>— Piktogramak: lasterka egin, ibili.<br>• Mezu laburrak eta esaldi errazak piktogramen laguntzaz irakurtzea eta egitea.<br>• Silueta zirkular askeak egitea. | • Ipuinak ikustea eta entzutea: irudiak.<br>• Ipuinak, gozatzeko eta ikasteko:<br>— Ipuin motibatzailea: *Txio, txio... Amatxo?*<br>— Ur Tantak bilduma: *Zer ikusten duzu?* | • Ahozko hizkuntzaren bidez, objektuak eta pertsonak deskribatzea.<br>• Unitateko lexikoa erabiltzea.<br>• Unitateko piktogramak interpretatzea.<br>• Zirkuluak nahierara marraztea.<br>• Ipuin bat interpretatzea, irudiei begiratuta.<br>• Plastikako teknika hau erabiltzea: oratzea.<br>• Zenbait animaliaren hotsa antzeratzea.<br>• Zenbait animalia nola ibiltzen diren antzeztea. |
| • Oratzearen teknika erabiltzea, hainbat materialekin.<br>• Ekoizpen plastikoekiko interesa.<br>• Plastikako tailerrak egitea: *Nire ahatetxoa* (bakarkako jarduera) eta *Naturaren txokoa* (taldekako jarduera).<br>• Hotsak: animalien onomatopeiak. | • Entzunaldiak: RIMSKY-KORSAKOV, N.: *Elurrezko neskatxa*; DEBUSSY, C.: *Ilargi argia*.<br>• Antzezpenak: animaliak. | |

# Programazioa
## Hara eta hona… nora ote doa?

| | helburuak | |
|---|---|---|
| **Norberaren ezaguera eta autonomia pertsonala** | • Pixkanaka, norberaren gorputza ezagutzea eta ikertzea.<br>• Emozioak kontrolatzea, pixkanaka: algaraka, negarrez.<br>• Gorputza kontrolatzea espazioan lekualdatzeko hainbat modu erabiltzean: oinez, lau hankan, herrestan.<br>• Gorputza kontrolatzea jarduera ludikoetan.<br>• Bide segurtasuneko oinarrizko arauak errespetatzea.<br>• Istripuei aurrea hartzearekin loturiko ohiturak bereganatzea. | **Nortasun pertsonala sortzea**<br><br>**Ongizate pertsonala eta egunerokotasuna** |
| **Ingurunearen ezaguera** | • Objektuak multzokatzea.<br>• Kokalekuak identifikatzea: -(r)en alboan.<br>• Objektuen forma eta kolorea identifikatzea.<br>• Zenbait animalia nola ibiltzen diren ohartzea.<br>• Udan gertatzen diren aldaketei erreparatzea.<br>• Segurtasunarekin eta osasunarekin loturiko lanak egiten dituzten hurbileko pertsonen lanbideak bereizteko interesa izatea.<br>• Hainbat objektu ezagunen erabilera ezagutzea: lanabesak.<br>• Garraiobide batzuk ezagutzea.<br>• Hurbileko komunikabideak ezagutzea: telebista, telefonoa, egunkaria… | **Ingurune fisiko eta naturalarekiko interakzioa**<br><br>**Bizitza ingurukoekin** |
| **Hizkuntzak: komunikazioa eta adierazpena** | • Gauzak ahoz adierazteko gaitasuna lantzea.<br>• Unitate honetako hiztegia erabiltzea.<br>• Izenak eta ezaugarriak biltzen dituzten esaldi errazak egitea.<br>• Adierazpen idatziko baliabideak identifikatzea: egunkaria.<br>• Irudiak eta piktogramak interpretatzea.<br>• Marra horizontalak egiteko, mugimenduen koordinazioa garatzea.<br>• Ipuin bat irakurtzen edo kontatzen denean, entzuteko interesa erakustea.<br>• Plastikako lanetan itsastearen teknika plastikoa esperimentatzea.<br>• Hotsak bereiztea: hots luzeak eta laburrak.<br>• Keinuen bidez, zenbait lanbide adieraztea. | **Hitzezko komunikazioa**<br><br>**Komunikatzeko beste modu batzuk: plastikakoa, musikakoa eta gorputzaren bidezkoa** |

# UNITATEA 6

<table>
<tr><th colspan="2">edukiak</th><th>ebaluazio irizpideak</th></tr>
<tr><td>● Norberaren gogo aldarteak erregulatzea eta kontrolatzea: algaraka, negarrez.</td><td>● Lekualdatzeko hainbat era esperimentatzea eta erabiltzea: oinez, katamarka, herrestan.</td><td rowspan="2">● Emozioak pixkanaka kontrolatzea: barre algarak egin, negar egin.<br>● Gorputza etengabe kontrolatzen lortzea, ibiltzeko zenbait modutan: oinez, katamarka, herrestan.<br>● Bizikidetza ohiturak garatzea: kalea zebra bidetik zeharkatzea, heldu bati eskua emanda ibiltzea.</td></tr>
<tr><td>● Bide segurtasuneko elementuak identifikatzea: oinezkoen pasabideak.</td><td>● Kalan ibiltzeko oinarrizko segurtasun arauak bereganatzea: heldu bati eskua emanda ibiltzea.</td></tr>
<tr><td>● Kolorearen araberako bildumak.<br>● Espazio kokalekua: -(r)en alboan.<br>● Objektuak forma eta kolore ezaugarrien arabera bereiztea.</td><td>● Animaliei behatzea: ibiltzeko moduak.<br>● Inguruneko aldaketak: uda.</td><td rowspan="2">● Objektuak kolore baten arabera multzokatzea.<br>● Espazio kokalekua identifikatzea: zerbaiten/norbaiten ondoan.<br>● Objektu baten koloreari eta formari antzematea.<br>● Inguruneko animaliak nola ibiltzen diren bereiztea.<br>● Udako ezaugarriren bati erreparatzea.<br>● Segurtasunarekin eta osasunarekin loturiko lanak egiten dituzten hurbileko pertsonen lanbideak identifikatzea.<br>● Laneko tresnei antzematea.<br>● Garraiobide batzuk bereiztea.<br>● Hurbileko komunikabideak hautematea: telebista, telefonoa, egunkaria.</td></tr>
<tr><td>● Haurren hurbileko pertsonen lanbideak identifikatzea: sendagilea, erizaina, polizia, suhiltzailea…<br>● Inguruneko lanbideekin loturiko lanabesak.</td><td>● Lanbideekin loturiko garraiobideak behatzea.<br>● Komunikabideak: telebista, telefonoa, egunkaria.</td></tr>
<tr><td>● Oinarrizko hiztegia erabiltzea: izenak, ekintzak eta ezaugarriak.<br>● Izenak eta ezaugarriak erabiliz esaldiak osatzea.<br>● Egunkarien behaketa gidatua.<br>● Egunkarietako irudiak eta testuak identifikatzea.<br>● Irakurketa programa:<br>— Piktogramak: irakurri, idatzi.<br>● Mezu laburrak eta esaldi errazak piktogramen laguntzaz irakurtzea eta egitea.</td><td>● Laminan marra horizontalak egitea.<br>● Ipuinak, gozatzeko eta ikasteko:<br>— Ipuin motibatzailea: Hara eta hona... nora ote doa?<br>— Ur Tantak bilduma: Non dago Margolin?</td><td rowspan="2">● Izenak, ekintzak eta ezaugarriak biltzen dituzten esaldi errazak zuzen egitea.<br>● Unitateko lexikoa erabiltzea.<br>● Egunkariak informazio testua duela konturatzea.<br>● Unitateko piktogramak interpretatzea.<br>● Marrak alde batetik bestera egitea.<br>● Plastikako teknika hau erabiltzea: itsastea.<br>● Hots luzeak eta laburrak bereiztea.<br>● Lanbide bat antzeztea.</td></tr>
<tr><td>● Hainbat elementu itsatsiz plastikako lanak egitea.<br>● Plastikako tailerrak egitea: Nire gurasoen autoa (bakarkako jarduera) eta Nire gelako liburua (taldekako jarduera).<br>● Hotsak bereiztea: luzeak, laburrak.</td><td>● Entzunaldiak: ROSSINI, G.: Gilen Tell operako obertura, Lone Ranger; SMETANA, B.: Moldava.<br>● Lanbide batzuei dagozkien jarduerak antzeztea.</td></tr>
</table>